



## **Ombudsmanen Iberoamerikako Federazioaren (DIF) Haur eta Nerabeen Sareak Estatuiei dei egiten die Ukraina eta Errusiaren arteko gatazka armatua bizi duten haur eta nerabeen babes eraginkorra eta eskubideak bermatzeko**

Ombudsmanen Iberoamerikako Federazioaren (DIF) Haur eta Nerabeen Sareak bat egin du Ukrainan bizi diren 7.5 milioi haur babesteko deiarekin, baita beste gerra eta gatazka armatu batzuk bizi dituzten herrialdeetako<sup>1</sup> haurrak babesteko deiarekin ere. Era berean, gatazka armatuen ondorioz haurrik ez erreklutatzea, ez erabiltzea eta haien bizitza eta garapena arriskuan ez jartzea eskatzen du, hain zuzen ere, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan eta gatazka armatuetan parte hartzeari buruzko Aukerako Protokoloan xedatzen dena betez. Protokolo hori Batzar Nagusiak onartu zuen 2000ko maiatzaren 25ean, eta 2002ko otsailaren 12an jarri zen indarrean<sup>2</sup>.

Haur eta Nerabeen Sareak gatazkan dauden alderdiei eskatzen die ekintza militarra bertan behera uzteko eta konponbidea bide baketsuen bidez bilatzeko; haurren eta nerabeen bizitza, segurtasuna eta ongizatea arriskuan jartzen duen edozein ekintza saihesteko; azpiegitura zibilei ez erasotzeko (bereziki, haur eta nerabeei eragiten dieten azpiegiturak: eskolak, instalazio medikoak eta ur eta saneamendu sistemak), eta erakunde humanitarioei sarbide segurua bermatzeko.

Estaturen betebeharra da gatazka armatuen ondorioz arrisku-egoeran bizi diren haur eta nerabeen babes eraginkorra bermatzea, eta, alde horretatik, laguntza eta babesa ematea hurrek eta nerabeek beren eskubideak erabat baliatu ditzaten, hala nola osasun fisiko eta mentalerako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, segurtasunerako eskubidea, zaintzak jasotzeko eskubidea eta bake- eta segurtasun-giroan hazteko eta garatzeko eskubidea.

---

<sup>1</sup> Palestina, Siria, Yemen, Libia, Sudan, Afganistan, Kongoko Errepublika, Mali, besteak beste

<sup>2</sup> Ikusi hemen: <https://www.ohchr.org/sp/professionalinterest/pages/opaccrc.aspx>

Horrez gain, estatuei gogorazten zaie neurriak hartu behar dituztela haurrak eta nerabeak gatazkan parte hartzera behartzeko erreklutamenduak edo erabilerak prebenitzeko.

Alde guztiei dei egiten diegu su-etena adostu dezaten eta bakea eta giza eskubideen erabateko errespetua lortzera zuzendutako elkarrizketak abiatu ditzaten.

Sare honek, halaber, bat egiten du Haurren kontrako Indarkeriaren eta Gatazka Armatuen Idazkaritza Nagusiko ordezkari bereziek Ukrainako egoerari buruz egindako adierazpen bateratuarekin.

Adierazpena esteka honetan kontsulta daiteke:

<https://reliefweb.int/report/ukraine/joint-statement-situation-ukraine-special-representatives-secretary-general-children>